



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO IKASLEENTZAT

---

# CURIE Araudi Orokorra

---

- *Científicos Unidos Realizando Investigación  
Estupenda* -

## Aurkibidea

<b>1</b>	<b>Definizioak</b>	<b>1</b>
1.1	CURIE lehiaketa . . . . .	1
1.2	Antolakuntza . . . . .	1
1.3	Partaidea . . . . .	1
1.4	Epaimahaia . . . . .	1
<b>2</b>	<b>Partaidetza</b>	<b>1</b>
<b>3</b>	<b>Araudia</b>	<b>1</b>
3.1	Portaera arauak . . . . .	1
3.2	Zigorak . . . . .	2
3.3	Taldeen aukeraketa . . . . .	2
3.4	Araudi berezia . . . . .	2
<b>4</b>	<b>Lehiaketa</b>	<b>2</b>
4.1	Azterketaren dinamika . . . . .	2
4.2	Azterketaren araudia . . . . .	3
4.3	Epaimahia . . . . .	3
4.4	Sariak . . . . .	3

2022-2023 ikasturtea

# 1 Definizioak

## 1.1 CURIE lehiaketa

CURIE lehiaketa (Científicos Unidos Realizando Investigación Estupenda) Zientzia eta Teknologia Fakultateko txapelketa bat da, Zimatek Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko ikasleen elkarrekin antolatua.

## 1.2 Antolakuntza

Lehiaketa egituratu eta arautzen duen pertsonen elkarrekin, hau da, Zimatek.

## 1.3 Partaideak

Lehiaketan izen-emandako eta Antolakuntzak onartutako talde bateko taldekidea.

## 1.4 Epaimahaia

Partaideek egindako problemak zuzendu eta ebaluatzen dituzten pertsonen taldea

# 2 Partaidetza

- 3 edo 4 lagunez osatutako taldeetan bakarrik hartu daiteke parte
- Taldeen osieran aldaketak egiteko izen-ematearen ondoren Antolakuntzaren ezagutza eta baimena behar da.
- Taldeak parte hartu ahal izateko bere partaideen % 100-a Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasle izan behar da.  
Oharra: Master bat edo Fakultateko edozein gradu edo gradu bikoitz egiten ari diren pertsonak onartuko dira Fakultateko ikasle gisa.

# 3 Araudia

## 3.1 Portaera arauak

Lehiaketa osoan zehar partaideek Fakultateko portaera arauak jarraitzea espero da. Horretaz gain, bidezko ebaluazio baten aurka doazen jokoerak ere portaera arauen kontrako bezala iritziko dira, eta zigortuak izango dira beraz. Jokaera hauetako batzuk (baina ez guztiak) hurrengo hauek dira:

- Partaideen arteko komunikazio ez onartua. Onarturiko komunikazioa Antolakuntzak baimendutakoa da.
- Antolakuntzak ikusi eta onartu ez duen edozein gailuren erabilera.

Pertsona baten edo gehiagoren segurtasun edo ongizateraen aurka doan edo azterketa baten izaeraren aurka doan edozein portaera ezegokitzat sailkatzeko eskubidea gordetzen du Antolakuntzak.

Azkenik, Antolakuntzaren erabakiak ukaezinak eta apelaezinak dira, eta momentuan bertan onartu eta jarraitu behar dira.

### 3.2 Zigorrak

Zigorrak Antolakuntzaren erabakiaren menpe daude, eta abisu bat edota partaide baten edo talde oso baten kanporaketa izan daitezke, adibidez. Beste zigor mota bat azterketaren notan puntuak kentzea izan daiteke.

### 3.3 Taldeen aukeraketa

Partaidetza baldintzak betetzen dituen talde orok du izen emateko eskaera egiteko eskubidea.

Talde gehiegik eskatzen badu izen ematea, Antolakuntzak taldeak baztertuko ditu, kopuru egoki batera iritsi arte. Kasu honetan eskakizuna aurretik egin duten taldeek izango dute lehentasuna.

Antolakuntzak lehiaketa hasi aurretik taldeak kanporatzeko eskubidea gordetzen du, horretarako arrazoi onargarriak balitu.

### 3.4 Araudi berezia

Arau hauek ezohiko egoeretan jarraitu beharrekoak dira:

- Ezohiko egoeretan, Antolakuntzak lehiaketa eteteko edo luzatzeko eskubidea du.
- Araudian azaltzen ez diren egoeretan, Antolakuntzak jarraitu beharreko arauak erabakitzeko eskubidea du.

## 4 Lehiaketa

### 4.1 Azterketaren dinamika

Taldeek idatzizko proba bat egin beharko dute. Proba honetan enuntziatuek esandako moduan ahalik eta problema gehien ebatzi beharko dituzte.

Talde berdineko partaideen arteko komunikazio onartzen da (kontrakoa esan ezean), eta partaideek taldelanean ebatzi beharko dituzte ariketak.

Lehiketak hurrengo ezaugarriak izango ditu:

- Ariketa bakoitza gai horretan aditua den irakasle batek prestatu du.
- Azterketak 4 orduko iraupena izango du.
- Problema baten enuntziatuak zalantzak sortzen baditu, taldeek eskubidea dute azalpen bat eskatzeko. Azalpena talde guztientzat baliogarria dela uste badu, Antolakuntzak talde guztiei emango die.
- Antolakuntzak lehiaketan zehar problemak kendu edo aldatzeko eskubidea gordetzen du. Hau gertatuko balitz, Antolakuntzak talde guztiei komunikatuko lieke aldaketa.

## 4.2 Azterketaren araudia

Talde bakoitzak erantzun bakarra entregatuko du problema bakoitzeko, hurrengo baldintzekin:

- Enuntziatuak formatu helebidunean emango dira (euskeraz-gaztelania), eta ebazpenak hizkuntza horietako batean entregatu beharko dira beraz.
- Taldeek kalkulagaiu simple edo zientifiko bat erabili dezakete (ez dira onartuko kalkulagaiu grafiko edo programagarriak).
- Liburuaren edo bestelako informazio iturrien erabilera guztiz debekatua dago lehiaketan zehar.
- Ariketa bakoitza orri berri batean hasi beharko da.
- Taldearen izena entregatzen diren orri guztien goiko aldean idatziko da.
- Ebazpenak Antolakuntzak emandako orrietan egin behar dira. Orriak zenbakituak izango dira, eta ariketa bakoitza zein orrialdeetan egin den adierazi behar da.
- Boligrafo urdina edo beltza erabili behar da, idazkera argi eta txukunean.
- Ebazpenak arrazoituak eta koherenteak izan behar dira, hau da, egindako pausu guztiak azaldu behar dira.
- Zenbakizko kalkuluetan, amaierako emaitza lortzerakoan erabilitako aldagai guztien balioak adierazi behar dira.
- Emaitzak enuntziatuan emandako parametroen menpe adierazi behar dira.

Aurreko baldintzaren bat beteko ez balitz, Antolakuntzak egokitzat jotzen duen zigorra ezartzeko eskubidea gordetzen du.

## 4.3 Epaimahia

Problema guztiek dute ebazpen zuzen bat. Lehiaketaren irabazlea azterketan puntu gehien lortzen dituen taldea izango da. Berdinketa egongo balitz, erantzunetan sormen gehien erakutsi duen taldea irabazletzat aukeratzeko eskubidea gordetzen du Antolakuntzak.

## 4.4 Sariak

Taldeak CURIE lehiaketaren lehen edizioko txapeldun tituluarengatik eta 150€-ko sari baten-gatik lehiatuko dira.